

# V. ENPLEGUAREN KONGRESUA

Euskal enplegu-politikak eraldatzen,  
ekonomia jasangarri eta lehiakor ba-  
tean lan duina izateko

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

2022ko urriak 27 · 28

Kursaal Kongresu Jauregia

## EGITARAUA



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU  
SALA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y EMPLEO



Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo



## AURKIBIDEA

AGURRA.....	4
AURKEZPENA.....	5
HITZALDIEN ETA MAHAIEN GAIAK.....	7
EGITARAUA.....	12
1. JARDUNALDIA.....	12
2. JARDUNALDIA.....	14
IREKIERA ETA HIZLARIAK.....	17
BATZORDE ZIENTIFIKOKO KIDEAK.....	27
ZERBITZUAK.....	29

# AGURRA

2020-2024 legegintzaldiko Enplegu Kongresuak Lan eta Enplegu Sailaren Gobernu Programarekin eta haren politikak planifikatzeko tresnekin bat etorriz garatzen dira.

2020an Lan eta Enplegu Sailaren ardura hartu nuenetik, hiru enplegu-kongresu antolatu ditugu Euskadin. Lehenengoa, Euskal Enplegu Sistema eraikitzen lelopean, eremu horretan inplikaturako eragile guztiak enplegu-politiken diseinuan txertatzeko abiapuntua izan zen. Bigarrenak, Enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa kontratu sozial berri baterako izenburuarekin, kontratu sozial berri horren premisa gisa kalitatezko enplegua ezartzeko beharra finkatu zuen, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia (EEE) eta 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa landuta helburu horretara iristeko bidea zehaztuz.

Serie logiko horri jarraituz, ENPLEGUAREN V. KONGRESUAK – Euskal enplegu-politikak eraldatzen, ekonomia jasangarri eta lehiakor batean lan duina izateko – euskal politika publikoen koiunturazko eta egiturazko erronkei nazioarteko eta Europako joerekin lerrotaturako ikuspegi propio batetik ematen ari gaitzaizkien erantzunak aurkezten ditu.

## **Eraldatzen.**

“Indar” ideia horrekin, ekintzak gauzatzeko urtea, ikerketaren eta esperimentazioaren urtea, berrikuntzarako eta ebaluaziorako tresna berriak sortzeko urtea, pertsona ahulek enplegua lortzeko dituzten oztopoak gainditzeko lagunduko duten programak zehazteko urtea ari da izaten 2022 hau; azken batean, aurreko urteetan zehaztutako erronkei erantzunak eskaintzeko eta 2030erako EEE betetzeko urtea.

Enpleguaren V. Kongresu honetan landu beharreko gaiak gure gobernu-helburuen giltzarriak dira: datozen urteetarako enpleguari buruzko euskal politika publikoaren legegintza-artikulazioa eta aukera-berdintasuna oztopatzen duten gai kritiko, errepikari eta estrukturaleri heltzea, kalitateko enplegua lortzeko oztopo baitira.



**Idoia Mendia Cueva**  
**Bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua**

## AURKEZPENA

Enpleguaren aurtengo Kongresuan, enpleguaren arloan ospe handia duten adituek parte hartuko dute, hitzaldi magistralak aurkeztuz eta/edo eztabaida-mahai tematikoetan parte hartuz. Bi egun jarraian iraungo du, eta 11 ekitaldi publiko egingo dira, 7 ponentzian eta 4 eztabaida-mahaitan banatuta.

**LEHENENGO JARDUNALDIAN** 4 txosten aurkeztuko dira eta eztabaida-mahai bat izango da. Esparru-ponentzia nazioarteko eta euskal lan-merkatuan eragiten duten funtsezko faktoreei buruzkoa izango da, bai eta koiuntura-aldaketan (2008ko krisia, pandemia, Ukrainako gerra) balizko "egitura"ri buruzkoa ere.

Ondoren, enplegu duin baterako enplegu-politiketarako **eskubide subjektiboari** buruzko txosten bat aurkeztuko da, eskubidearen subjektibotasunaren oinarrietan eta enplegu-zerbitzu publikoak eskatzen dituzten pertsonak jaso beharreko zerbitzu edo programetan gauzatzean sakonduko duena.

Gero, enpleguari buruz abian diren legegintza-ekimenei buruzko bi txosten labur aurkeztuko dira: **Enpleguari buruzko Estatuko Lege Proiektuaren aurkezpena eta Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektuaren aurkezpena**, enplegu-politika publikoen kudeaketa antolatze eta optimizatzeko ekimenak. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, enplegu-ekimenean jarduten duen erakunde-sarea egituratzeko, enplegu-sistema eta -zerbitzuak sakonki hobetzeko eta euskal herritarrak erdigunean jartzeko tresna gisa. Aurrekaririk gabeko mugarri historikoa izango da Lege Proiektua, eta enplegu duin eta kalitatezkoaren oinarri sendoak ezarriko ditu, enplegu-politika publikoetatik abiatuta.

Ondoren eta lehenengo jardunaldia amaitzeko, eztabaida-mahai bat antolatuko da, enplegu-politika publikoak, politika horiek estatuan eta autonomia erkidegoan duten lerrokatzea, eta lege-esparruek enplegu-sistemaren eraginkortasunean eta efizientzian duten eragina aztertu eta baloratzeko.

**BIGARREN JARDUNALDIA** 5-10 urteko epean populazio-talde **handiak ordeztzeko eta horien adina kudeatzeko beharra dela-eta, lan-erreleboaren erronka demografikoari** buruzko hitzaldi eta eztabaida-mahai batekin hasiko da. Zalantzarik gabe, gure inguruko Europako gizarte gehienek duten erronka nagusietako bat da.



# AURKEZPENA

Ondoren, enplegu-politika publikoen zerbitzura dauden **informazio-sistema aurreratuei** buruzko txosten bat aurkeztuko da. Informazioa, ez bakarrik prospekziarako tresna gisa, baita enplegu-zerbitzuen erabiltzaileentzako zerbitzuen eta baliabideen prebentziarako eta iragarpenerako tresna gisa ere. Informazioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren prestazio berri gisa ulertuta.

Hirugarrenik, **enpleguari eta gizarte-desberdintasunei** buruzko eztabaida-mahai batek honako hauek jorratuko ditu: batetik, biztanleria-talde handiek enplegua lortzeko dituzten oztopoak, eta, bestetik, enpleguak eta enplegu-politikek gizarte-desberdintasunak zuzentzeko duten gaitasuna, baita **enplegu-aukeren** sustatzea ere, **berdintasunezko gizarte inklusiboago baterantz egiteko**.

Laugarren ponentziak ahalegin proiektiboa egingo du, **enpleguaren etorkizunari begira**. Bizi ditugun ziurgabetasunak direla eta: aldaketa geopolitikoak, osasunekoak, klimatikoak, teknologikoak, erronka demografikoak, laneko errenten balioaren devaluazioa kapitalaren errenten aurrean, automatizazioa arrisku edo aukera gisa, saihestezina al da lan-merkatuaren dualtasuna? (Kualifikazio altua-baxua, soldata altuak-langileak). Enpleguaren inguruko **paradigma-aldaketa posible bati buruzko hausnarketa-teorizaziorako** gaiak, enplegua egun ezagutzen dugun bezala ezagututa.

Amaitzeko, ENPLEGUAREN V. KONGRESUKO Aholkularitza Batzorde Zientifikoko partaideek partekatutako ondorioen eztabaida-mahai bat izango dugu. Haien ekarpenek landutako gaien balantzea egingo dute, eta etorkizuneko jarduera-programetarako jarraibideak eta proposamenak egingo dituzte.

## HITZALDIEN ETA MAHAIEN GAIAK



### ENPLEGUA, ERALDAKETA DIGITALA ETA LEHIAKORTASUN IRAUNKORRA

Mintzaldi honetan Europako Batzordearen Joint Research Centrek eraldaketa digitalak enpleguan duen eraginari buruz berriki egindako ikerketa batzuk aurkeztuko dira. Zehazki, honako hauei buruzko ebidentziak aurkeztuko dira: enpleguaren automatizazioa (giza lana makinekin ordezkatzea), prozesuen digitalizazioa (gailu digitalen erabilera lanean) eta algoritmoen erabilera enplegu-harremanak kudeatzeko (kudeaketa algoritmikoa). Fenomeno horiek Europako enpleguan dituzten ondorioak eztabaidatuko dira, eta prozesu horien eta Europa mailako trantsizio ekologikoaren arteko harremanari buruzko gogoeta batzuekin amaituko da.



### LAN DUIN BATERAKO ESKUBIDEA ETA ESKUBIDE SUBJEKTIBOA ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOETAN

Lanerako eskubidea (EKren 35.1 art.) ez du lanpostu jakin bat barne hartzen, enpresak ezin baitira kontratatzeraz behartu (EKren 38 art.). Hala ere, pertsonen duintasunarekin eta nortasunaren garapen askearekin lotutako oinarrizko premia baten aurrean gaude (EKren 10.1 art.). Konstituzioa bera ere jabetzen da arazoaz, "enplegu betea lortzera bideratutako politika" exijitzen baitu (40.1 art.). Europako zuzenbideak (CSER eta PEDS) Estatuak langabezia dauken pertsonen lana bilatzen lagundu diezaien eskubidea aitortzen du, gutxienez. Eskubide "berri" horren konfigurazioa funtsezkoa da Konstituzioko eta nazioarteko helburuak betetzeko, eta autonomia erkidegoek aurrera egin dezakete norabide horretan, horretarako eskumena baitute.

# HITZALDIEN ETA MAHAIEN GAIAK



## ENPLEGUARI BURUZKO ESTATUKO LEGE-PROIEKTUA

Enpleguari buruzko Estatuko Lege Proiektuaren aurkezpena. Zeharkako arau horrek soldatapekoen prestakuntza eta kualifikazioa eta enpresetan duten abiapuntua hobetzen ditu, eta soldatapekoei zuzentzen zaie. Horren barruan sartzen dira langileak, langabeak, aktiboak eta autonomoak. Arau berriaren helburua da lan-merkatuaren beharrei erantzutea eta egiturazko ahuleziei aurre egitea, hala nola langabeziari -oro har-, edo bereziki gazteen langabeziari



## ENPLEGUARI BURUZKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Enpleguari buruzko Euskal Legearen Aurreproiektuaren aurkezpena, euskal erakunde-sarea egituratzeko eta euskal herritarrentzako enplegu-sistema eta -zerbitzuak errotik hobetzeko tresna gisa. Aurrekaririk gabeko mugarri historikoa izango da Lege Proiektua, eta enplegu duin eta kalitatezkoaren oinarri sendoak ezarriko ditu, enplegu-politika publikoetatik abiatuta.



## MAHAIA: ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOAK ETA LEGEGINTZA-EKINTZA

Eztabaida-mahaia, enplegu-politika publikoak, estatuan eta autonomia erkidegoan duten lerrotzea, eta lege-esparruek enplegu-sistemaren eraginkortasunean eta efizientzian duten eragina aztertu eta baloratzeko. Mahaiaren helburua da, alde batetik, aztertzea nola aldatzen diren enplegu-printzipioak eta -politikak arau-esparruetara, eta, beraz, nola artikulatzen diren pertsoneri eska dakizkiekeen eskubide-multzo batean eta administrazio publikoei dagozkien betebeharrak eta erantzukizun korrelatiboetan; eta, bestetik, hausnartzea zer beharizan dagoen eta nola lerrotzen eta koordinatzen diren jarduera-maila desberdinak sistema integratu eta koherente baten barruan, administrazio bakoitzak duen autonomiari eta eskumen espezifikoari kalterik egin gabe.





## “ZAHARTZEA ETA LANA BIRFORMULATZEN”

Lan-erreleboaren erronka demografikoa, 5-10 urteko epean populazio-talde handiak ordezkatzeko beharragatik. Zalantzarik gabe, gure inguruko Europako gizarte gehienek duten erronka nagusietako bat da.



## MAHAIA: BELAUNALDI-ERRELEBOA

Adinaren kudeaketa eta belaunaldien arteko lankidetzeta. Belaunaldi arteko lan-ordezkapen inklusiboa eta bidezkoa: ekitate seniorren eta gazteen lan-baldintzetan. Enpresa-erreleboak: ezagutzak eta enpresa transmititzea.



## EZAGUTZAREN BALIOA ETORKIZUNeko LAN-MERKATUAREN ERRONKEI AURRE EGITEKO. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA AURRERATUA

Azken hamar urteetan, aldaketa izugarriak izan ditu lan-merkatuak, eta eragina nahiko nabarmena da: lanbide berriak sortzen ari dira, eta lehendik zeuden lanbideen inguruko trebetasunak aldatzen ari dira; gero eta desoreka handiagoa dago eskariaren eta eskaintzaren artean; “pertsonek ahulenak” lan-merkatutik kanpo geratzeko arriskua gero eta handiagoa da. Fenomeno horiek oso azkar ari dira aldatzen lan-merkatuaren dinamika, eta horrek etengabe eguneratzeko eta faktore bereizgarriak “denbora errealean” identifikatzeko gaitasuna eskatzen du, erakunde, elkarte eta gizabanakoei erabakiak hartzen laguntzeko.

Egoera horretan, Big Data eta adimen artifizialeko tresnak ezagutzeak berebiziko garrantzia du datuetan oinarritutako erabakiak hartzen laguntzeko.

# HITZALDIEN ETA MAHAIEN GAIAK



## MAHAIA: ENPLEGUA ETA DESBERDINTASUN SOZIALA

Posible al da berdintasuna enplegua lortzeko orduan? Enplegu-politika gai al da berdintasunezko gizarte inklusibo bat lortzen laguntzeko? Sexuagatik, adinagatik, desgaitasunagatik edo gizarte- edo kultura-diskriminazioko beste faktore batzuegatik objektiboki zailtasun handiagoak dituzten pertsonen enplegua lortzeko dituzten oztopoak kentzeko palankak.



## ENPLEGUAREN ETORKIZUNA. Ekonomiaren eta gizartearen bilakaerak eta aldaketek lan-paradigma berri baterantz al garamatzate?

Automatizazioa, enplegurako arrisku eta aukera gisa. Zertaz ari gara enpresen langile-premien eta lana bilatzen ari diren pertsonen gaitasunen arteko desorekaz hitz egiten dugunean? Lan-merkatuaren polarizaziorantz al goaz, oso kualifikatuta dauden eta kalitatezko enpleguak dituzten pertsonen, eta kualifikazio txikia eta enplegu prekarioak dituzten pertsonen artekorantz?

Azterketa aurreratzailerak eta proiektiboak, **enpleguaren etorkizunari begira**, bizi ditugun ziurgabetasunak kontuan hartuta (aldaketa geopolitikoak, osasunekoak, klimatikoak, teknologikoak, demografikoak), lan-errentek kapitalaren errenten aurrean duten balio-debaluzioa, enpleguari buruzko paradigma-aldaketa posible bati buruzko hausnarketa-teorizaziorako gaiak.



## PARTEKATUTAKO ONDORIOAK

ENPLEGUAREN V. KONGRESUKO Aholkularitza Batzorde Zientifikoko parte-hartzaileen artean **partekatutako ondorioen eztabaida-mahaia**. Haien ekarpenek landutako gaien balantzea egingo dute, eta etorkizuneko jardueraren programetarako jarraibideak eta proposamenak egingo dituzte.



# EGITARAUA

## 1. JARDUNALDIA: 2022/10/27

# EGITARAUA

## 1. JARDUNALDIA: 2022/10/27

Aurkezlea: EVA DOMAIKA ANSOLA

**09:15 - 10:00**

### INAUGURAZIO EKITALDIA

- Marisol Garmendia Beloqui. Donostiako Udaleko Bigarren alkateordea eta Ekonomia eta Enplegua Bultzatzeko, Ekologiako eta Osasun Publikoko zinegotzia.
- Jabier Larrañaga Garmendia. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatua.
- Idoia Mendia Cueva. Bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua.

**10:00 - 10:45**

### ESPARRU HITZALDIA: "ENPLEGUA, ERALDAKETA DIGITALA ETA LEHIAKORTASUN IRAUNKORRA"

- Mikel Landabaso Álvarez. Hazkunde eta Berrikuntzako zuzendaria Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuan.

**10:45 - 11:30**

### MINTZALDIAK: "LAN DUIN BATERAKO ESKUBIDEA ETA ESKUBIDE SUBJEKTIBOA ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOETAN"

- Guillermo Escobar Roca. Alcalako Unibertsitateko (Madril) Konstituzio Zuzenbidean katedraduna.
- José Luis Gil y Gil. Alcalako Unibertsitateko (Madril) Lanaren Zuzenbideko katedraduna.

**11:30 - 12:00**

### KAFERAKO ATSEDENALDIA

**12:00 - 12:45**

**"ENPLEGUAREN ARLOKO LEGEGINTZA-EKIMENAK"**  
Estatuko Enplegu Legearen proiektua eta Euskal Enplegu Legearen Aurreproiektua aurkezteko gunea.

## 1. HITZALDIA 12:00-12:20: "ESTATUKO ENPLEGU LEGEAREN PROIEKTUA"

- Gerardo Gutiérrez Ardoy. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko (SEPE) zuzendari nagusia.

## 2. HITZALDIA 12:20-12:40: "EUSKAL ENPLEGU LEGEAREN AURREPROIEKTUA"

- Alfonso Gurpegui Ruiz. Enplegu eta Gizarteratze sailburuordea. Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritzak.

12:45 - 13:45

## MAHAI-INGURUA: "ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOAK ETA LEGEGINTZA-EKINTZA"

MODERATZAILEA: Tomás Arrieta Heras. Lan Harremanen Euskal Kontseiluko lehendakaria.

PARTE-HARTZAILEAK:

- Luz Rodríguez Fernández. Zuzenbidean doktorea Valladolideko Unibertsitatean eta Zuzenbideko irakasle titularra. Espainiako Lan eta Immigrazio Ministerioko Enpleguko Estatu idazkari ohia.
- José Jaime López Cossío. Enplegu eta prestakuntzako aholkularia. Enpleguaren aldeko Hirien Foroko Laguntza Teknikoko zuzendaria.
- Iñigo Arteché Hernández. IKERTALDE aholkularitza taldeko proiektu-zuzendaria eta bazkidea.

# EGITARAUA

## 2. JARDUNALDIA: 2022/10/28

### 2. JARDUNALDIA: 2022/10/28

09:00 - 09:30

**HITZALDIA: "REFRAMING AGING AND WORK" / "Zahartzea eta lana birformulatzan"**

- Ruth Finkelstein. Zahartze osasungarrirako Brookdale Zentroko zuzendari exekutiboa eta Hiri Osasun Publikoko irakaslea. Hunter College/CUNY (New York).

09:30 - 10:30

**MAHAI-INGURUA: "BELAUNALDI-ERRELEBO INKLUSIBOA ERAKUNDEETAN"**

**Ikuspegi praktikoa. Erronken irtenbideak**

MODERATZAILEA: Iñigo Calvo Sotomayor. Deusto Business School-Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea, eta Boletín de Estudios Económicos aldizkari zientifikoko koeditore nagusia.

PARTE-HARTZAILEAK: ADINAREN KUDEAKETA ERAKUNDEETAN:

- Mercedes Oleaga Páramo. Teknikari seniorra ORKESTRA-Lehiakortasunerako Euskal Erakundean.
- Gotzon Bernaola Ariño. Berrikuntzaren Euskal Agentziako Enpresa Berrikuntzako koordinatzaile nagusia - INNOBASQUE. ENPRESA-TRANSMISIOA.
- Susana González Rómulo. Enpleguko zuzendari nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.

10:30 - 11:00

**MINTZALDIA: "EZAGUTZAREN BALIOA ETORKIZUNEN LAN-MERKATUAREN ERRONKEI AURRE EGITEKO. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA AURRERATUA"**

- Mario Mezzanzanica. Milango Bicocca Unibertsitateko Goi Mailako Prestakuntzako eta Laneratzeko errektoreordea. Estatistika eta Metodo Kuantitatiboak Saileko burua. Zuzendari Zientifikoa - CRISP Zerbitzu Publikoen Ikerketarako Unibertsitate arteko Zentroa. Estatistika eta Metodo Kuantitatiboak Saila.

11:00 - 11:30

**KAFERAKO ATSEDENALDIA**

11:30 - 12:45

**MAHAI-INGURUA: ENPLEGUA ETA DESBERDINTASUN SOZIALA**

MODERATZAILEA: Sara de la Rica Goiricelaya. Ekonomia katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). ISEAKeko zuzendaria.



**PARTE-HARTZAILEAK:**

- Sergio Torrejón Pérez. Europako Batzordearen Politika Publikoen Ikerketa Zentroko analista ekonomikoa.
- Carlos Martín Urriza. Alcalá de Henareseko Unibertsitateko Ekonomia Fakultateko irakaslea. Ekonomian doktorea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
- Raquel Sebastián Lago. Unibertsitate Konplutentseko (Madril) Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko ikertzaile seniorra.
- Antonio González González. Ekonomialaria. Lan Ministerioko Enplegu idazkari nagusia (2006-2008). Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kidea.

**12:45 - 13:30****HITZALDIA: "ENPLEGUAREN ETORKIZUNA", "Ekonomiaren eta gizarteren bilakaerak eta aldaketek lan-paradigma berri baterantz al garamatzate?"**

- Cristina Garmendia Mendizabal. Berrikuntzarako COTEC Fundazioko lehendakaria. Zientzia eta Berrikuntzako ministro ohia. Espainiako Gobernu.

**13:30 - 14:15****PARTEKATUTAKO ONDORIOEN MAHAIA**

MODERATZAILEA: Fernando Fantova Azcoaga. Gizarte aholkularia.

**PARTE-HARTZAILEAK:**

- Fernando Consuegra Revuelta. Batzorde Zientifikoko kidea, SARTU TALDEAREN koordinatzaile nagusia.
- M.<sup>a</sup> Jose Aranguren Querejeta. Batzorde Zientifikoko kidea, ORKESTRAKO zuzendari nagusia.
- Iñigo Arteché Hernández. Batzorde Zientifikoko kidea, IKERTALDEKO proiektu-zuzendaria eta bazkidea.
- Iñigo Calvo Sotomayor. Batzorde Zientifikoko kidea. Deusto Business School- Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Boletín de Estudios Económicos aldizkari zientifikoko koeditore nagusia.
- Sara de la Rica Goiricelaya. Batzorde Zientifikoko kidea. Ekonomia katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). ISEAKeko zuzendaria.

**14:15****AMAIERA.** Francisco Pedraza Moreno. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria.



## IREKIERA ETA HIZLARIAK

### IREKIERA INSTITUZIONALA

## MARISOL GARMENDIA BELOQUI



Euskalduna, Informazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Deia egunkarian eta Zabalik euskarazko astekarian egin du lan. 2007-2011 legegintzaldian, Donostiako Udaleko Lehendakari zinegotzia eta 2016ko Europako Kultur Hiriburua izateko Hautagaitzaren arduraduna izan zen. Lurralde Antolamendu eta Mugikortasuneko foru diputatua PSE-EEen 2015-2019 legegintzaldian. 2019-2023 legegintzaldian, udal-taldeko bozeramailea eta Gune Publikoetako eta Proiektu eta Obretako zinegotzia da. 2020ko azaroan, erantzukizuna aldatu zuen, eta Ekonomia Bultzatzeko, Ekologiako eta Osasun Publikoko zinegotzigoa hartu zuen bere gain.

## JABIER LARRAÑAGA GARMENDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatua. Informatikan lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. MBA Executive Deustuko Unibertsitatean. Finantza Korporatiboak IESE - Nafarroako Unibertsitatean. Finantza Erakundeen Kudeaketa eta Zuzendaritzako Masterra Kutxa. Europako Unilever konpainietan Customer Management and Delivery-n prozesu eta sistema komunak inplementatzea. Enpresen Sareko zuzendari komertziala Kutxa-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa. Kutxabank S.A.-ko Gipuzkoako Enpresen Banka Sareko zuzendaria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko eta Finantzetako diputatua (2015-2020).



## IDOIA MENDIA CUEVA



Bigarren lehendakariordea eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu sailburua (2020ko irailetik). Trantsizio demografiko, energetiko eta digitalen ondorioei lotutako enplegu-politika publikoen eraldaketa sakona zuzentzen du legegintzaldi honetan. Zeregin horien ondorioz, enplegu-zerbitzu publikoaren eredu berri bat bultzatu du, baita arlo horretako lege berri bat ere, eta diru-sarrerak bermatzeko sistema arinago bat diseinatu du, prozesu horretan inor atzean gera ez dadin. Zuzenbidean lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, eta Nazioarteko eta Europako Harremanetan graduondokoa du Amsterdam School of International Relations-en. Gainera, lehen emakumea izan da PSE-EE/PSOE zuzentzen, eta, 2021eko urritik, PSOEren Batzorde Exekutibo Federaleko Ikasketa eta Programen idazkaria da. Euskal eta espainiar politikarekin zerikusia duen liburu bat eta hainbat hitzaurre zein artikulua idatzi ditu, eta txostenak eman ditu Euskadin, Madrilan, Seulen eta Berlinen, enpleguaren berrikuntzari eta gizarte-kohesioari buruz.

# IREKIERA ETA HIZLARIAK

## EVA DOMAIKA ANSOLA. Aurkezlea

Informazio Zientzietan lizentziaduna UPV/EHU. 1989an eman zituen lehen urratsak kazetaritzan, desagertutako GAUR EXPRESS egunkarian, baina ibilbide profesional osoa irratian egin du, Radio Vitoria, Radio Euskadi, Cadena COPE eta Cadena SER irratietan. 2009az geroztik, Euskadiko Cadena SER irratiko edukien zuzendaria da, eta ardura hori arratsaldeko La ventana Euskadi albistegiaren astelehenetik ostiralera bitarteko zuzendaritzarekin uztartzen du. Albistegi horren barruan, La ventana de la memoria tartea eskaintzen du Domaikak hilero, Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren Fernando Delgado kazetaritza saria jaso duena. Arlo horretan, Los empresarios y ETA liburua idatzi du, beste egile batzuekin elkarlanean.



## IREKIERA ETA HIZLARIAK

---

## MIKEL LANDABASO ÁLVAREZ

Hazkuntza eta Berrikuntzako zuzendaria da Ikerketa Zentro Komunean, eta Sevillako unitatearen kudeaketaz arduratzen da. Aurretik, Estrategia eta Komunikazio Korporatiboko zuzendaria izan zen Lehendakariaren Kabineteari atxikitako Komunikazioko Zuzendaritza Nagusian. Eskualde Politikako Komisarioaren Kabineteko burua izan zen, baita Europar Batasuneko Hazkunde Jasangarri eta Adimendunerako Saileko eta Espainiarako Egitura Funtsen arduraduna ere. Europako Batzordean hasi aurretik, Ikerketa Saileko burua eta Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako (SPRI SA) zuzendari nagusiaren laguntzailea izan zen (1986-1990).

Hainbat unibertsitatetan ematen ditu eskolak, eta gaur egun ohorezko irakasle bisitaria da Cardiffeko Unibertsitatean. 2004an, Christiane Bom saria eman zion Europako Eskualde Garapenerako Agentzien Elkarteak (EURADA), Europako eskualde-politikan berrikuntzari egindako ekarpenagatik.



## GUILLERMO ESCOBAR ROCA

Alcalako Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna. Alcalako Unibertsitateko Zientzia Juridikoen Saileko zuzendaria (2013-2019). Auzitegi Nazionaleko ordezkari magistratua (2004-2009). 2007tik, Iberoamerikako Herriaren Defentsarako Erakundeei Laguntzeko Eskualde Programaren eta Iberoamerikako giza eskubideei, Zuzenbide Estatuari eta demokraziari buruzko Masterraren zuzendaria izan da. Giza eskubideetan eta oinarriko eskubideetan, ingurumen-zuzenbidean, komunikazio-zuzenbidean eta Ombudsmanaren irudian oinarritu da bere ikerketa. Gai horiei buruzko 150 artikulua baino gehiago argitaratu ditu, 10 liburu egile gisa eta 37 liburu koordinatzaile edo editore gisa. 200 hitzaldi baino gehiago eman ditu, nazioarteko kongresu, mintegi eta bere unibertsitatekan ikastaroetan.



## JOSÉ LUIS GIL Y GIL



Lanaren Zuzenbideko katedraduna da Alcalako Unibertsitatean; ikerketa-egonaldi luzeak egin ditu Alemaniako, Belgikako, Estatu Batuetako, Frantziako eta Italiako unibertsitateetan, eta irakasle gonbidatua izan da Bordeleko, Nanteseko, Pantheon-Assas Paris IIko eta Bergamoko unibertsitateetan. Ikerketako bost seiurteko ditu aitortuta, eta ikerketa-taldea zuzentzen du. Bere ikerketa-jarduera lan-kontratuaren dogmatikan eta lanaren nazioarteko eta Europako zuzenbidean oinarritu da. Gai horiei eta beste batzuei buruzko ehun artikulua baino gehiago argitaratu ditu estatuko eta atzerriko aldizkari juridikoetan, bai eta monografiak ere, hala nola *La prescripción de las faltas laborales* (1993), *Autotutela privada y poder disciplinario en la empresa* (1994) eta *Principio de la buena fe y poderes del empresario* (2003).

## ALFONSO GURPEGUI RUIZ

Enpleguari, gizarteratzeari eta gizarte-zerbitzuei lotutako jarduera profesional eta zuzendaritza zabala garatu du azken 35 urteetan. Egun, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Gizarteratze sailburuordea da, eta lehenago Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria. Era berean, Gizarte Gaietako sailburuorde eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendari izan zen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean. Donostiako Udaleko Espazio Publiko, Ekologia eta Jai Jardueren Arloko zinegotzi ordezkaria izan zen, Zeharkako Proiektu eta Programen arduraduna eta Bidasoako Garapen Agentziako Enplegu eta Gizarte Berrikuntza Saileko burua. Irungo Udaleko Herritarrekiko Harremanen eta Gizarte Zerbitzuen Arloko zuzendari profesionala, Bidasoako Garapen Agentziako Enplegu eta Prestakuntza Saileko zuzendari profesionala eta Irungo eta Eibarko Udaleko Lantegi Eskolako zuzendari profesionala.





# IREKIERA ETA HIZLARIAK

## GERARDO GUTIÉRREZ ARDOY



Espainiako Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) zuzendari nagusia. Esperientzia handia du enplegu-politiken arloan. Zuzenbidean lizentziatua eta Enpleguan, Lan Harremanetan, Gizarte Elkarrizketan eta Gizarte Segurantzaren aditua da. Gainera, lidergoari eta politika publikoen kudeaketari buruzko masterra du. Hainbat lanpostu izan ditu Enplegu Sistema Nazionalean, eta, ondorioz, oso ondo ezagutzen du Espainiako enpleguaren esparru estatuala eta autonomikoa. 2008tik 2011ra Enplegu zuzendari nagusia izan da Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoko Enplegu Zerbitzu Publikoan. Ondoren, lanpostu garrantzitsuak izan ditu lan-esparruan. 2018ko uztailetik, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) zuzendari nagusia da.

## TOMÁS ARRIETA HERAS

Zuzenbidean lizentziaduna eta espezialitate juridiko-ekonomikoan diplomaduna Deustuko Unibertsitatean. Abokatu eta Gizarte Segurantzako Administrazioaren letraduen kidegoko eszedentzian dagoen funtzionarioa, batez ere lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren arloan aritu da, eta, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluko burua da. Deusto Business School-eko (DBS) irakasle laguntzailea da lan-harremanen eta negozio kolektiboaren arloan.



## LUZ RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ



Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna da Gaztela-Mantxako Unibertsitatean. Enpleguari eta lan-harremanei buruzko artikulua ugari argitaratu ditu liburu kolektiboetan eta aldizkari espezializatuetan. Hauek dira bere azken liburuak: *Humanos y robots: empleo y condiciones de trabajo en la era tecnológica*; *Tecnología y Trabajo: el impacto de la revolución digital en los derechos laborales y la protección social*; *Plataformas laborales y mercado de trabajo*, eta *El Futuro del Trabajo que Queremos*. Gaur egun, Lanaren Nazioarteko Erakundearekin (Geneva) elkarlanean aritu da, plataformen ekonomian egiten den lan txukunari buruzko Adituen Hiruko Topaketa egiteko. Estatuko Enplegu idazkaria izan da eta San Raimundo Peñafortekoaren Ordenako Lehenengo Klaseko Ohorezko Gurutzea jaso du.



## JOSE JAIME LÓPEZ COSSÍO

Enplegu- eta prestakuntza-politiketan aritzen den LAUDANTIS aholkularitza-enpresako aholkulari autonomoa eta bazkide-zuzendaria da, eta 25 urtetik gorako esperientzia du gizarte-politikak diseinatzen, kudeatzen eta ebaluatzen. Galiziako Gobernuko Enplegu zuzendari nagusia izan zen 7 urtez (1996-2003), eta INEMen politika aktiboak Autonomia Erkidego horretara transferitzeko ordezkari autonomikoaren buru izan zen. Sarritan laguntzen die enplegu-zerbitzu publikoei eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuei aholkularitza- eta ikerketa-lanetan. Azken urteotan, Munduko Bankuko aholkulari aditu gisa eta nazioarteko hainbat lankidetzeta-proiektutan lan egin du.



## IÑIGO ARTECHE HERNÁNDEZ



Sektore publikoko aholkularia da 1989tik IKERTALDE Grupo Consultor SAn, eta hainbat erantzukizun izan ditu bertan; gaur egun, kontseilari delegatua da eta, bertatik, hainbat ekimen dinamizatu ditu (GPI Consultores-eko zuzendaria, CIDECeko presidenteordea). Administrazioaren maila instituzional desberdinetarako (tokikoa, eskualdekoa eta estatukoa) proiektuetan parte hartu du, eta zuzendu ere egin ditu, bai Espainian, bai Latinoamerikan; Behaketa eta Análisis zerbitzuetan eta Estrategia Instituzionala eta Politika Publikoen Ebaluazioan aritu da. Bere jarduerabilbidearen zati handi bat lan-merkatuaren, enpleguaren eta lanbide-heziketaren esparruari lotu zaio; etengabe aritzen da euskal administrazioarekin lankidetzan, eta hainbat autonomia erkidegotako gobernuetako enplegu-sailekin, SEPErekin eta FUNDAErekin garatu ditu proiektuak; izan ere, hainbat ebaluazio eta azterlan egin ditu horientzat.

## RUTH FINKELSTEIN

Ruth Finkelstein Hunter Collegeko Brookdale Center for Healthy Aging-eko Rose Dobrof zuzendari exekutiboa eta Osasun Publikoko zein Politika Publikoetako irakaslea da. Zahartzeari buruzko Hunter ikerketa- eta politika-zentroa zuzentzen du. Zentro horrek aukerak sustatzen ditu bizitzan zehar, zahartzea ahalik eta onena izan dadin. Finkelstein doktoreak zahartzearekin lotutako hainbat ekimen zuzendu ditu, hainbat sari jasotakoak, hala nola Age Smart Employer Awards programa, Exceeding Expectations proiektua (80



# IREKIERA ETA HIZLARIAK

urte baino gehiago dituzten New Yorkeko biztanleen kronika digitala) eta Age-Friendly New York City, Best Age Friendly Initiative in the World sariaren irabazlea. Osasunaren Mundu Erakundearen Adinekoei Egokitutako Hirien Sare Globalaren kide sortzaile gisa, mundu osoko berrogeita hamar hiri baino gehiagotako GKE-ei eta gobernu-erakundeei eman die aholku. Osasun politikan doktoregoa du Johns Hopkins Unibertsitatean, antropologian masterra Case Western Reserve Unibertsitatean, eta lizentziatura Michigango Unibertsitatean.

## IÑIGO CALVO SOTOMAYOR



Deustuko Unibertsitateko Deusto Business School-eko irakaslea eta ikertzailea da, bai eta Boletín de Estudios Económicos aldizkari akademikoko koeditore nagusia ere. Maila zientifikoan, liburuetako kapituluak eta artikuluak argitaratu ditu nazioartean, eta bere ikerketa estrategiaren eta zahartzearen ekonomiaren gaietan oinarritu du. Gainera, irakasle bisitaria da Czech University of Life Sciences-en (Txekiar Errepublika) eta University of Belgrad-en (Serbia), eta bere jarduera akademikoa enpresentzako eta erakundeentzako transferentzia- eta aholkularitza-proiektuekin uztartzen du. 2014tik BBK Banku Fundazioaren Patronatuko kide da, Ikuskaritza Batzordeko eta Inbertsio Batzordeko kide. 2017an Marshall Memorial Fellow izendatu zuten. Aldizka argitaratzen du nazioko zein nazioarteko komunikabideetan, El País, El Diario Vasco edo The New York Times egunkarietan, besteak beste.

## GOTZON BERNAOLA ARIÑO

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren Enpresa Berrikuntzako koordinatzaile nagusia. Bere esperientziaren ardatza berrikuntza eta gobernantza-eredu berritzaileak ezartzea da, lurraldeko eragileekin lankidetzan. Berrikuntza-plan publikoen diseinua, berrikuntza publikoari laguntzeko tresnak eta erakundeen arteko lankidetzako proiektuen sustapena dira bere gain hartu dituen funtzioetako batzuk. Gaur egun, ETE berritzaileen kopurua handitzen ari da Euskadin, eta, horretarako, enpresa txiki eta ertain horiei entzuteko eta laguntzeko prozesuak aktibatuta, eta balioa ematen dieten erronkei eta/edo premiei egokitutako irtenbideak eskaintzen dizkie, berrikuntzatik urrutien dauden enpresetara iristeko. Matematika Zientzietan lizentziatua, Probabilitate Kalkuluan eta Estatistikan espezializatua, Nazioarteko Merkataritza eta Enpresa Kudeaketan masterra du UPV/EHU, eta Enpresa Prestakuntzan masterra Madrilgo Unibertsitate-Enpresa Institutuan.





## MERCEDES OLEAGA PÁRAMO

Teknikari seniorra da Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuan. Ongizate Labaren parte da, eta bere ikerketa-interes nagusia ongizatearen zerbitzura dagoen lehiakortasuna da, batez ere lehiakortasunak pertsonen ongizatean dituen ondorioei eta enpleguaren, aldaketa demografikoaren edo Garapen Iraunkorrerako Helburuen esparruetan duen harreman-dimentsioari lotuta. Orkestran sartu aurretik, administrazio publikorako aholkularitza estrategikoan egin du lan, zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzeko politikak eta tresnak diseinatzeko eta ezartzen, eta eskualdeen lehiakortasuna hobetzeko jarduerak zehazten.

## SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO

Bizkaiko Foru Aldundiko Enpleguko zuzendari nagusia. Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziaduna UPV/EHU. Gizarteratze politikak ebaluatzen, programatzen eta gainbegiratzen unibertsitate aditua UNEDen eta ikasketa politikoetan eta gobernantzan masterra UPV/EHU. Bere lan-bizitzan zehar, kudeaketan eta politikan aritu da: 1995-2006 eta 2011-2015, Leioako Udaleko zinegotzia; 2004-2011: Bizkaiko Batzar Nagusietako ahalduna, Gizarte Ekintzako Batzordeko burua; 2015-2019, Enplegu, Gizarteratze eta berdintasun Saileko aholkularia; 2019-gaur egun, Enpleguko zuzendari nagusia.



## MARIO MEZZANZANICA



Informazio sistemen irakaslea da Milan-Bicoccano Unibertsitatean, eta, 2019ko urritik, Prestakuntza Aurreratuko eta Enpleguko errektoreordea da. 2018tik Estatistika eta Metodo Kuantitatiboen Saileko zuzendaria da. Irakaskuntza-eta ikerketa-jardueretan, big data, negozio-adimena (BI) eta ezagutzaren aurkikuntza (KD) teknikak eta metodologiak aplikatzen ditu, lan-merkatuko, irakaskuntzako eta lanbide-heziketako aplikazioetan arreta berezia jarrita. Nazioko zein nazioarteko hainbat ikerketa-proiektu koordinatu ditu, eta ehun argitalpen zientifiko baino gehiago izan dira horren emaitza. Erakunde publikoek bultzatutako batzorde tekniko eta zientifikoetan parte hartu du, zerbitzu publikoen esparruan proiektu berritzaileak diseinatzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko eredu eta metodologia berriak aztertzeko helburuarekin.

# IREKIERA ETA HIZLARIAK

## SARA DE LA RICA GOIRICELAYA

ISEAK Fundazioko zuzendaria eta Ekonomiako katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean AMETICen Gogoeta Foroko kidea. Nadia Calviño Gobernuako presidenteordearen Aditu Aholkularien Batzordeko kidea. Iberdrolako kontseilari independentea, Garapen Iraunkorreko Batzordeko presidentea. European Society for Population Economics-eko presidentea, 2012. COSME Emakumeak Ekonomian duen Egoerari buruzko Komiteko presidentea, 2012-2013. FEDEA Ekonomia Aplikatuaren Espainiako Fundazioko kidea, 2007-2018



## SERGIO TORREJÓN PÉREZ



Soziologian doktorea, lan-merkatuaren analisisian (teknologia berrien erabilerak enpleguan duen eragina, okupazio-aldaketa) eta desberdintasunean (enpleguaren polarizazioa, gizarte-klaseak) espezializatua. Ikerketa-egonaldiak egin ditut Eurofound-en (Dublin) eta Europako Unibertsitate Institutuan (Florentzia), eta analista gisa lan egiten dut Joint Research Centre-n (Europako Batzordea). Espainiako Osasun, Gizarte Ongizate eta Kontsumo Ministerioan lan egin dut, eta ikerketa soziala eta merkatuen ikerketa egin dut 40dB-n, baita tokiko administrazio nazionalean (Pintoko Udala) eta Danimarkakoan ere (institutuko irakasle gisa).

## ANTONIO GONZÁLEZ GONZÁLEZ

Ekonomia Zientzietan lizentziatua UCMn. Kargu publiko hauek bete ditu: Lan Ministerioako Enpleguako idazkari nagusia (2006-2008), Lan Ministroaren Kabineteko zuzendaria eta Gobernuako presidentearen Ekonomia Bulegoko batzordekide aholkularia. Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kidea.



## CARLOS MARTÍN URRIZA

Alcala de Henareseko Unibertsitateko Ekonomia Fakultateko irakaslea. Ekonomian doktorea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko Kontseiluko eta Sindikatuen Europako Konfederazioko Politika Ekonomikoko Batzordeko kidea.



## RAQUEL SEBASTIÁN LAGO



Ikertzaile seniorra, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, 2019-2022. Aholkularitza Batzordea, Bizi eta Lan Baldintzak Hobetzeko Europako Fundazioa, 2021-2024. Kanpoko ikertzailea, Joint Research Centre (Europako Batzordea, Ispira, Italia), 2018-2019. Ekonomian doktoregoa, Salamancako Unibertsitatea, 2014-2018. Ekonomia eta Metodo Kuantitatiboak ikerketa-masterra, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, 2009-2011. Ekonomian lizentziatua, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, 2003-2008. Kazetaritzan lizentziatua, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, 2003-2008.

## FERNANDO FANTOVA AZCOAGA

Gizarte aholkularia.

Aholkulari independentea joan den mendearen amaieratik. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik Espainian eta Latinoamerikan eskuhartze eta gizarte-politikan lanean. Eusko Jaurlaritzako Gizarte-gaietako Sailburuordea izan nintzen.

10 liburu eta 200 artikulua zein txosten idatzi ditut.



## CRISTINA GARMENDIA MENDIZÁBAL



Biologia Zientzietan doktorea, genetika espezialitatean, biologia molekularreko Margarita Salas irakaslearen zuzendaritzapean egin zuen doktoretza. Nafarroako Unibertsitateko IESE Business Schoolen MBA batekin osatu zuen bere prestakuntza akademikoa. Gaur egun, COTEC Fundazioko presidentea eta hainbat aholku kontseilutako kide da, Unicefekoa eta Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartekoa (AECC), besteak beste, bai eta unibertsitateetako hainbat kontseilutakoa ere. Kontseilari independentea da Caixabank, Grupo Logista, Mediaset eta Ysios Capital Partnersen administrazio-kontseiluetan, eta Europako Batzordearen Espazioaren Aholku Batzordeko kidea. Besteak beste, Satlantis Microsats enpresa sortu du. Espainiako Gobernuko Zientzia eta Berrikuntza ministroa izan zen IX. Legegintzaldian. Enpresa-arloko ikerkuntza eta berrikuntzaren arloan egindako lana eta ikuspegi ekintzailea saritu zaizkio.

# IREKIERA ETA HIZLARIAK



## FERNANDO CONSUEGRA REVUELTA

Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Sartu Taldeko koordinatzaile nagusia da, erakunde horrek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten du lan, laneratze eta gizarteratze arloan. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordea (2005-2009). Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko zuzendaria (2004-2005). Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako aholkulari teknikoa (2003-2004). Bere ibilbide profesionala enpleguaren, gizarte-zerbitzuen eta ekonomia solidarioaren esparruko kudeaketarekin eta aholkularitzarekin lotuta egon da, eta kudeaketa- eta erantzukizun-funtzioak bete ditu, bai hirugarren sektorean, bai administrazio publikoan, bai eta gizarte-ikerketako, irakaskuntzako eta herritarrek sare sozialetan parte hartzeko jardueretan ere.

## M.<sup>a</sup> JOSÉ ARANGUREN QUEREJETA

Orkestrako zuzendari nagusia eta Ekonomia Katedraduna da Deustuko Unibertsitatean. Lehiakortasunean eta lurralde estrategian, klusterretan eta sareetan, eta politiken analisisian eta ebaluazioan aditua da. Gai horien inguruan liburu eta artikulu ugari argitaratu ditu, nazioko eta nazioarteko eragin handiko aldizkari espezializatuetan. Esperientzia zabala du nazioko eta nazioarteko proiektuak gidatzen, aipatutako ikerketa eremuetan. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko eragileekin eskuz esku egin du lan. 2016ko abenduan Harvardeko Estrategia eta Lehiakortasunerako Institutuak bere ibilbidea eta lurralde lehiakortasunean edukitako ekarpena aitortu du, bere izena 'Hall of Fame' aretoan sartuz.



## FRANCISCO PEDRAZA MORENO

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria. Garraio, Merkataritza eta Marketin Institutua Fundazioko zuzendari gerentea izan da. Erakunde hori enplegurako prestakuntzan, ikerketan, berrikuntzan eta enpleguaren sustapenean aritzen da. Gobernu-lanetan hasi aurretik, Prestakuntza Funtsaren Gipuzkoako ordezkaria izan zen. Prestakuntza-, orientazio- eta laneratze-programak, azterlanak eta proiektuak zuzendu eta egin ditu sektore publikoan eta pribatuan 30 urte baino gehiagoz.



## BATZORDE ZIENTIFIKOKO KIDEAK

### JOSEBA ZALAKAIN

Eguía Careaga Fundazioko SIIseko zuzendaria 1996tik,  
eta bertako zuzendaria 2007tik.



### FERNANDO CONSUEGRA REVUELTA

Deustuko Unibertsitateko irakaslea  
eta Sartu Taldeko koordinatzaile nagusia.

### SARA DE LA RICA GOIRICELAYA

Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomiako  
katedraduna eta ISEAK Fundazioko zuzendaria.



### MARÍA SAIZ SANTOS

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea  
eta Ekintzailetzaren Euskal Behatokia (EEB-OVE)  
presidentea.

## IÑIGO CALVO SOTOMAYOR

Deustuko Unibertsitateko Deusto Business School-eko irakaslea eta ikertzailea



## JAVIER RAMOS SALAZAR

Lanbide eraldatzeko Lan eta Enplegu Saileko aholkularia.

## FERNANDO FANTOVA AZCOAGA

Aholkulari independentea politikaren, kudeaketaren eta esku-hartze sozialaren arloetan.



## M.ª JOSÉ ARANGUREN QUEREJETA


Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko zuzendari nagusia eta Deustuko Unibertsitateko Ekonomiako katedraduna.

## IÑIGO ARTECHE HERNÁNDEZ

Sektore publikoko aholkularia 1989tik IKERTALDE Grupo Consultor SA enpresan, Retail Euskal Eskolako kontseilaria.




## ZERBITZUAK



### QR KODEA

Izena eman duten pertsonak izena emateko unean helbide elektronikora igorritako QR kodearen bidez identifikatu eta sartuko dira ekitaldira.



### V. KONGRESUAREN APP-A

Enpleguaren V. Kongresuak gailu mugikorretarako app bat du; deskargatu egin daiteke, eta honako funtzio hauek eskaintzen ditu: Izen-emateak, Berriak, Kongresuko Jakinarazpenak, Gizarte-hormak/ Hizlarienezako galderak eta Inkestak.

Sartzeko esteka: <https://www.eventool.com/VCEE>



### STREAMING-A

Enpleguaren V. Kongresuak zuzeneko emisio-zerbitzu bat (streaminga) du, izena eman duten eta ekitaldia urrutitik jarraitu nahi duten pertsona guztientzat. Gailu mugikorretatik edo ordenagailuetatik sartu behar da, izena urrutitik parte hartzeko emateko unean jasotako estekaren edo QR kodearen bidez.

Erregistro-plataformarako/streaming saioa hasteko sarbidea esteka honetatik da:

<https://www.eventool.com/web/VCEE/vcee/eu/hasiera>



## BIRTUALKI PARTE HARTZEKO HORMA

ENPLEGUAREN EUSKADIKO V. KONGRESUAREN app-aren funtzionalitateen artean, Enpleguaren V. Kongresuan Birtualki Parte Hartzeko Horma dago, topaketarako eta ideien eztabaida atzeraelikatzeko gune bat. Aplikazioaren bidez, edozein parte-hartzailek zalantzak, galderak edo eztabaida-gai berriak planteatu ahal izango dizkie mahaiei eta hizlariei denbora errealean, aurrez aurre edo sarean.



## ALDIBEREKO INTERPRETAZIOA

Kongresuko ekitaldi guztien (txostenak, mahaiak eta eztabaidak) aldibereko interpretazioa, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, baita keinu-hizkuntzan ere.




## BUSINESS CENTER-A

Hizlariek eta parte-hartzaileek erabiltzeko.



## CATERING-A

Kongresuaren biegunetan, mokadubat-kaferako atsedenaldia- eskainiko zaie bertaratzen direnei, auditoriumeko bankete-gelan.



## IRISGARRITASUN FISIKOA

Sarbidea

Sarrera nagusia irisgarria da.

Barrurantz irekitzen diren alboko bi ate ditu;  
orri bikoitzekoak dira, eta 80 cm-tik gorako  
zabalera dute, pasatzeko.

Gurpil-aulkiak utziko zaizkie bisitariei.

Igogailua

Eraikineko solairu guztiekin komunikatuta dago. 80 cm-ko atea; barruko  
neurriak: 120 x 150 cm, gutxi gorabehera.

Komun irisgarria

Komun egokituak eraikineko solairu bakoitzeko gizonen zein emakumeen  
komun komunitarioetan integratuta, eta, gainera, komun egokitu  
independente bat solairu bakoitzean bi sexuentzat.

## APARKALEKUA ETA MUGIKORTASUNA

Kongresura autoz hurbiltzen direnentzat,  
aparkaleku propioa du Kursaalak, Jauregiko  
harrera-gelara zuzenean sartzeko aukera  
ematen duena. Era berean, bi aparkaleku  
publiko daude inguruan, oinez bost minutu  
baino gutxiagora. Hirian zehar mugitzeari  
dagokionez, ez da beharrezkoa ez autorik ez  
autobusik hartzea, hiriaren erdigunera oinez  
iristea erraza, eroso eta irisgarria baita.





